

GAU BELTZA

MIKROIPUIN LEHIAKETA



BLAĞÄN

HONDARRIBIKO EUSKARA ELKARTEA

GAU BELTZA

MIKROIPUIN LEHIAKETA

**BLAGAN EUSKARA
ELKARTEAK MIKROIPUIN
LEHIAKETA ANTOLATU DU
GAU BELTZAREN INGURUAN.
HAUEK DIRA LEHIAKETAREN
OINARRIAK:**

PARTE HARTZAILEAK

Bi kategoria egongo dira.
Gazteak, 18 urtetik beherakoentzat.
Helduak, 18 urtetik gorakoentzat.

GAIA

Mikroipuinen gaia
izango da.

IZUA

BALDINTZAK

- Euskaraz idatzia egongo da
- Ipuina originala izango da eta aldeztu aurretik argitaratu edo saritu gabea.
- Gehienez ere 100 hitz izango ditu.
- Parte hartzaile bakoitzak gehienez ere **2 lan** aurkeztu ahal izango ditu.

LANAK ENTREGATZEKO MODUA

- Ipuinak e-mailez bidali beharko dira helbide honetara:
euskarazblagan@gmail.com
- Mezu bakoitzak bi artxibo izango ditu:
- Ipuina biltzen duen artxiboa, pdf formatuan. Artxiboari lanaren izenburua jarriko zaio, adibidez: izua.pdf
- Lanaren izenburua eta egilearen datuak biltzen dituen artxiboa (izen-abizenak, jaiotze data, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa).
- Mezu elektronikoaren gaian hau jarri beharko da: "Blagan: Gau beltza mikroipuin lehiaketa 2022"
- Epea: 2022aren irailaren 28tik eta urriaren 14 arte.
- Epaimahaikideek artxibo bakarra jasoko dute, ipuinei dagokiena, anonimotasuna bermatzeko.

EPAIMAHAIA ETA ERABAKIA

- Epaimahaia hiru pertsonen osatuko dute. Bi blagankidek eta pertsona independente batek.
- Kategoria bakoitzeko bi ipuin sarituko dira eta erabakia apelaezina izango da.
- Erabakia posta elektronikoz nahiz telefonoz jakinaraziko zaio irabazleari eta Blagan elkartearen sare sozialetan zabalduko da. Tokiko hedabideetan ere zabalduko da.

- Hala erabakiz gero, epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake.
- Sari banaketa urriaren 31 arratsaldean izango da, aurrerago zehaztuko da non.
- Irabazleek sari banaketara bertaratu beharko dira. Ezinezkoa izatekotan, ordezkariaren bat bidali beharko dute.

AUTORETZA

- Autoreak egiazko izen-abizenak aurkeztu behar ditu, goitizetik gabe.

JABEGO ESKUBIDEAK

- Sariaren irabazleak ipuinaren eskubide guztiak Blagan euskara elkarteari lagako dizkio.
- Lan sarituaren jabego eta erabilpena soil-soilik Blagan euskara elkartearenak izango dira.
- Blagan euskara elkarteak testu irabazlea argitaratzeko, sare sozialetan edo beste espazio publikoetan erabiltzeko eskubidea izango du, beti ere egilearen izena adieraziz.
- Blagan euskara elkarteak ez ditu saritutako lanak erabiliko dirua irabazteko helburuarekin.

SARIA

- **Gazteak** (18 urtetik beherakoentzat).
Lehen sariak: 150€
Bigarren sariak: Lau pertsonentzako gosaria GARUA kafetegian
- **Helduak** (18 urtetik gorakoentzat)
Lehen sariak: 350€
Bigarren sariak: Bi pertsonentzako Eroskiko Selektia saskia
- Parte hartzaile guztien artean zozketak egongo dira

OINARRIEN ONARPENA

- Lehiaketan parte hartzen duenak oinarriok onartzen ditu, baita epaimahaiaren erabakia ere. Oinarri hauetan aipatzen ez den zerbaitek arazoren bat sortuko balu, erabakia epaimahaiaren esku egongo da eta parte hartzaileei jakinaraziko zaie.
- Parte hartzaileak ziurtatuko du aurkeztutako lanak ez dituela beste inoren egile eskubideak urratzen eta bere sormen pertsonalaren emaitza dela.

HARREMANAK

Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko, jarri harremanetan Blagan euskara elkartearekin:

euskarazblagan@gmail.com



HONDARRIBIKO EUSKARA ELKARTEA

Blağan

HONDARRIBIKO EUSKARA ELKARTEA

GAU BELTZA MIKROIPUIN LEHIAKETA

euskarazblagan@gmail.com

www.blagan.eus

LAGUNTZAILEAK



HK hondarribia
klinika

NEKAZARITZA
PRODUKTUAK



Mikel Galarza Pandilla



txanxanagorri
galarza



Muliateko
Giroa
kafea eta Sukaldia



itxaski
ITSASOKO PRODUKTUAK

GARUA
artisanu ogi-lantegia

JOXEAN
HARATEGIA
Harreslanda, 7
Hondarribia

UnaiOrtiz
podologoá